

Egilea: Laia Aranzadi Alda

Nola irudikatu ditu Historiak emakumeak?

Protagonista izatea, Historian zehar garrantzia eduki duten pertsona garrantzitsua izatea da, hau da, historiak baditu protagonistak, Historiaren hasieratik, gaur egun arte.

Historian zehar, hainbat protagonista garrantzitsu egon dira. Historiaurrean, Homosapiensak, lehen gizaki modernoak izan ziren; Antzinaroan, Agustin Hiponakoa, idazle, teologo eta filosofo kristaua; Erdi Aroan, Karlomagno, Europaren zati bat konkistatu zuen; Aro Modernoan, Kristobal Kolon, Amerika konkistatu zuen; eta gaur egun, Joe Biden, Estatu Batuetako presidentea, besteak beste. Egia da, emakume batzuk ere izan zirela, Kleopatra, Egiptoko erregina, Marie Curie, fisikari, matematikari eta kimikaria, Rosa Parks, aktibista etab, baina, historialariek, beti eman diete garrantzi gehiago gizonezkoei, protagonista izan diren eremu horiengatik, adibidez gerra edo agintea. Gainera, gizonezkoek zituzten arma guztiak, beraiei ematen zitzaielako garrantzi guztia, lehengo garaietan gizonak zirelako gizatalde boteretsuenak.

Azkenean oso modu txarrean edota injustuan irudikatu ditu Historiak emakumeak, gauza guztien atzetik; "gizarte patriarkala sortu zenetik, hau da, gizonezkoei nagusitasuna, agintea eta abantailak eman zaizkienetik, emakumeen irudia txarra dela esan dezakegu" Amaia Nausiak esan bazala arreta egunerokoan. Txarra esaten dugunean, emakumeei garrantzi historiko berbera ez diogula ematen esan nahi du. Zergatik ote da? Baliteke, arazo handi bat dugula hau pentsatzen dugunean. Gaur egun, protesta asko egoten dira emakumeek eta gizonezkoek garrantzi berbera eduki beharko genukeela aldarrikatzeko, bai lanerako baita errespetu aldetik ere. Baina egia da, azkenean, gu garela, emakumeok, lehenak gizonezkoei garrantzi gehiago ematen emakumezkoei baino, adibidez, lan aldetik. Adibide zehatzena lanbideetan izaten dela esan dezakegu, kamioi gidari batean pentsatzen hasten bagara, lehengo pentsamendua gizon batengan etortzen zaigu, aldiz irakasle batez pentsatzen hasten bagara emakume baten irudia etortzen zaigu burura. Lehen esan dugun bezala, protagonista gehienak gizonezkoak dira eta orain arte matematikari, fisikari edota kimikari gehienak gizonezkoak izan dira, eta emakumeei beti etxeko andrea bezala irudikatu zaie. Hau dena esanda, ondorioztatu dut, gizonezkoak Historian zehar gain-baloratuta egon eta daudela, eta zuek ados ahal zaudete nirekin?

